



LEA/AVC-REN TXOSTENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN SALTOKIAK JAIEGUNETAN IREKITZEARI BURUZKO EGOERA JURIDIKOARENA

I. XEDEA

1. Txosten honen xedea da saltokiak jaiegunetan irekitzeari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) araubide juridikoa aztertzea, merkatariek euren establezimenduak jaiegunetan irekitzeko duten eskubidea eta ahalmen horren irismena zehaztuta.

II. ENPRESA-ASKATASUNA

2. Enpresa-askatasuna EKren 38. artikuluan eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 16. artikuluan aitortutako oinarrizko eskubide bat da.
3. EK-k, 38. artikuluan, «merkatu-ekonomiaren esparruan, enpresa-askatasunerako» eskubidea aitortzen du. Aipatu manua Lehen Tituluaren II. kapituluko 2. atalean jasota dago, «Herritarren eskubideak eta betebeharrak» deritzen artean, eta, beraz, EK-ren 53. artikuluan xedatzen diren bermeak dagozkie: botere publiko guztiak lotzen ditu eta lege bidez bakarrik arau daiteke edukia, betiere oinarrizko edukia barne hartuta.
4. Bestalde, enpresa-askatasunerako eskubidea EK-ren 1. eta 10. artikuluetan ezartzen diren bermeekin lotuta dago (askatasuna, ordenamendu juridikoaren balio goren gisa, 1. artikulua; eta pertsonaren duintasuna, 10. artikulua).
5. Konstituzio Auzitegiak, hainbat eparen bidez¹, erabaki du auzia: enpresa-askatasunaren edukia zehaztu du, hala merkatuan sartzeko askatasunaren gainean, nola merkatuan irauteko askatasunaren gainean.

¹ Besteak beste, 84/1993 eta 71/1982 epaiak.



III. MERKATARIAK BERE ESTABLEZIMENDUA IREKITZEKO ESKUBIDEA

6. Merkataritza-jardueraren euskal legea (7/1994, maiatzaren 27koa) aldatu zuen azaroaren 10eko 7/2000 euskal legearen bigarren xedapen gehigarriaren arabera, Eusko Jaurlaritzak, EAEk merkataritza-arloan dituen eskumenak baliatuz, merkataritza-establezimendu handien irekiera- eta itxiera-ordutegien antolamendua arautu ahalko du, lehia aske eta leialaren printzipioekin bat.
7. Aipatu legea garatzeko, Eusko Jaurlaritzak 33/2005 Dekretua, otsailaren 22koa, EAEko merkataritzako ordutegiena, onartu zuen. Aipatu dekretuaren 2. artikuluan xedatzen denaren arabera, merkataritza-establezimendu handiek (publikoarentzako salmenta-azalera 400 metro koadrokoa baino handiagoa duten establezimendu txikizkariak) irekita egongo diren gehieneko igande eta jaiegun kopurua ezarri ahalko dute, betiere, urtean gehienez zortzi igandetan eta EAEko jaiegunetan irekitzeko mugarekin.
8. Estatuan, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak, merkataritza-ordutegiei buruzko abenduaren 21eko 1/2004 Legea aldatu zuen.
9. Igandetan eta jaiegunetan irekitzeari dagokionez, 27. artikuluan, irekita egon zitezkeen igandeen eta jaiegunen kopurua 16ra igo zuen, hori aldatzeko aukera emanda autonomia-erkidegoei, baina gutxienez 10 eguneko izateko baldintzarekin.
10. Eusko Jaurlaritzak inkonstituzionaltasun-errekurtsioa aurkeztu zuen (2218/2013 zk.) aipatu Errege Lege Dekretuaren (27. eta 28. artikuluen) aurka. Konstituzio Auzitegiak 119/2016 epaia eman zuen horren gainean ekainaren 23an, eta erabaki zuen estatuak ez zuela bere eskumenen mugarik gainditu merkataritzako ordutegien auzian (27. artikuluan)².

² Konstituzio Auzitegiaren 119/2016 epaia, ekainaren 23koa, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 2., 8., 10., 27. eta 28. artikuluen, eta azken xedapenetatik hirugarren aurka Eusko Jaurlaritzak aurkeztu zuen inkonstituzionaltasun-errekurtsioa ebazten duena.



11. Konstituzio Auzitegiaren epai horren ondorioz, Administrazio Publiko eta Justiziako sailburuordetzak «Jurisprudentzia iruzkina» agiria argitaratu zuen, epai horren ondorio praktikoak ezartzen dituena³:

«(.....)

-20/2012 ELDaren 27. eta 28. artikuluen oinarritzko araudia EAEn zuzenean aplikatzea.

-KAK Konstituzioaren arabera iritzi dien 27. eta 28. artikuluen edukia txertatu eta garatzea, merkataritza-jardueraren EAeko legea aldatuta edo horiek jasoko lituzkeen xedapen orokor berri bat eginda. (...)

12. Edonola ere, Merkataritza-ordutegiaren gaineko abenduaren 21eko 1/2004 Legearen arabera, merkatariek askatasun osoa dute establezimenduak irekita dituzten jaiegunen kopurua eta asteko edo eguneko orduen kopurua ezartzeko (1. artikuluan).

13. Oro har, legegileak establezimenduak publikoarentzako irekita egon daitezkeen gutxieneko igandeen eta jaiegunen kopurua ezartzen du: hamasei (4. artikuluan).

14. Alabaina, autonomia-erkidegoek kopuru hori handitu edo murriztu ahal izango dute behar komertzialen arabera; hala ere, gutxienez hamar igande eta jaiegunetan baimenduko da irekitzea.

15. Baiki, autonomia-erkidegoek zeinek bere lurralde-esparruan zehaztu dute igandeen eta jaiegunen kopurua, betiere urteko gutxienekoa beteta. Horretarako, autonomia-erkidegoak merkataritza-erakargarritasunari eman behar dio lehentasuna, irizpide hauetan oinarrituta:

a) Bi jaiegun edo gehiago jarraian egokitzen direnean jaiegun batean gutxienez irekitzea.

b) Merkealdiko igandeeetan eta jaiegunetan irekitzea.

³ <https://opendata.euskadi.eus/katalogoa/-/jurisprudentziazko-iruzkina/konstituzio-auzitegiaren-1192016-epaia-2016ko-ekainaren-23koa-konstituzio-kontrakotasuneko-2218-2013-errekurtsoa-eusko-jauriaritzak-jarria-uztailaren-13ko-202012-legegintzako-errege-dekretuaren-2-8-10-27-eta-28-artikuluen-eta-azken-xedapenetatik-hirugarre/>



c) Autonomia-erkidegora turista gehien bertarutzen diren igandeetan eta jaiegunetan irekitzea.

d) Gabonetako igandeetan edo jaiegunetan irekitzea.

16. Autonomia-erkidego guztiek, EAEk salbu, 2019ko igandeak eta jaiegunak zehaztu zituzten⁴.

17. Bestalde, EAEn, formaz indarrean da otsailaren 22ko 33/295 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-ordutegiei buruzkoa. Aipatu dekretuaren 2. artikuluan xedatzen denaren arabera, merkataritza-establezimenduek (publikoarentzako salmenta-azalera 400 metro koadrokoa baino handiagoa duten establezimendu txikizkariak) urtean gehienez 8 igande eta EAeko jaiegunetan irekitzeko muga dute.

18. Alabaina, 1/2004 Legeak, oinarrizkoa eta EAEn aplikatzekoa denak, gutxienez 16 igande eta jaiegunetan irekita egon daitezkeela xedatzen du.

19. Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia zenak, 2009ko abenduaren 3ko prentsa-oharraren bitartez, jakitera eman zuen Eusko Jaurlaritzari proposatuko ziola urteko jaiegunak dekretuz ezartzea. Proposamena proposamen, EAE da establezimenduak jaiegunetan irekitzeko egutegirik ez duen bakarra⁵.

20. Adierazi araubide orokorraz gain, Estatuko legegileak askatasun osoko araubide berezia ezarri du, irekiera-egun eta -orduei dagokienez, establezimendu hauetan:

a) Pastelgintzako eta gozogintzako saltokiak, okindegiak, plater kozinatuen saltokiak, prentsa-saltokiak, gasolindegia, lore- eta landare-dendak eta komenientziako dendak deituak⁶, muga-postuetako saltokiak, geltokietakoak

⁴ Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa. Igande eta jaiegunetan irekitzeko egutegia, 2019.

http://www.comercio.gob.es/es-ES/comercio-interior/Ordenacion-del-Comercio/Documents/2181220_CALEDARIO%20DOMINGOS%20Y%20FESTIVOS%20DE%20APERTURA%20COMERCIAL%202019.pdf

⁵ Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia. Prentsa-oharra, 2009ko abenduaren 3koa.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/nota_de_prensa/es_notadepr/adjuntos/NOTA%20DE%20PRENSA%20DEL%20TVDC%20%20HORARIOS%20COMERCIALES.pdf

⁶ 1/2004 Legearen 5.3 artikulua arabera, komenientziako dendatzat hartuko dira erakusketara eta publikoarentzako salmentara bideratutako azalera erabilgarria 500 metro koadro baino txikiagoa dutenak eta egunean gutxienez hemezortzi orduz irekita egoten direnak, betiere askotariko eskaintza



eta errepide-, itsas eta aire-garraiobideen azpiegituretakoak, eta turista asko dabilzan inguruetak⁷.

b) Aurrekoez bestelako tamaina txikiko saltokiak, baldin eta erakusketara eta publikoarentzako salmentara bideratutako azalera erabilgarria 300 metro koadro baino gutxiagokoa badute; multzo horretatik kanpo gelditzen dira indarreko legeriaren arabera enpresa txiki eta ertaintzat hartzen ez direnak.

badute (liburuak, egunkariak eta aldizkariak, elikagaiak, diskoak, bideoak, jostailuak, opariak eta bestelakoak).

⁷ 1/2004 Legearen 5.4 artikulua arabera, turista askoko eremuak dira udalerrri osoa edo zati bat barne hartzen duten eremuak, ezaugarri hauetakoren bat badute: (a) turismoko ostatu eta establezimenduetan plazen behar besteko kontzentrazioa izatea, kuantitatiboki edo kualitatiboki, edo, bestela, ohiko etxebizitzekin alderatuta bigarren etxebizitzaren kopuru nabarmena izatea; (b) Gizateriaren Ondare izendapena jaso izana edo ondare historiko artistikoan jasotako interes kulturalerako ondasun higiezin bat bertan egotea; (c) mugaldeko eremu izatea edo horien eraginpean egotea; (d) nazio edo nazioarte mailako kirol- eta kultura-ekitaldi handien kokagune izatea; (e) itsas bidaiak egiten dituzten ontzien edo konpainien jarduneko portuetatik gertu egotea eta bisitarien joan-etorri handia izatea; (f) erosketa-turismoa erakargarritasun nagusi duten eremuak izatea; eta g) hori justifikatuko duten baldintza bereziak egotea.

Turista askoko eremuaren izendapena autonomia-erkidegoak eman behar du, kasuan kasuko udalak eskatuta. Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salako 3. Atalaren Epaia, 2018ko uztailaren 17koa (2858/2017 Errekurtsoa); Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salako 3. Atalaren Epaia, 2019ko martxoaren 25ekoa (2795/2018 Errekurtsoa); eta Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salako 3. Atalaren Epaia, 2019ko maiatzaren 28koa (3308/2018 Errekurtsoa).



IV. ONDORIOAK

1. Enpresa-askatasunarena eskubide konstituzionala da, eta jarduera ekonomikorako sarbide-eskubidea hartzen du barnean, eta jarduera garatu eta uztekoa.

Txikizkako merkataritzan, enpresa-askatasunerako eskubideak berekin dakar igandetan irekita egoteko **askatasun osoa**, eta enpresaburuak jarduerara bideratuko dituen eguneko edo asteko orduen kopurua zehaztekoa.

2. Gutxienez irekita egon daitezkeen egunen kopurua hamasei da, eta autonomia-erkidegoek gehiago ere ezarri ditzakete, baina betiere gutxienez 10. EAEk ez du aldaketarik batere egin; beraz, merkatariek beren establezimenduak ireki ditzaketen egunen kopurua 1/2004 Legean ezarritakoa da; gutxienez 16.

Establezimenduak jaiegunetan irekitzeaz ari bagara, enpresa-askatasunaz ari gara. Merkatariek, inguruabarrak zein dituen, modu librean erabakiko du establezimendua publikoarentzako ireki edo ez, eta zenbat orduz.

3. LEA/AVC-ren gomendioa:

- Merkatarien askatasun osoa bermatzea, batik bat saltoki txikiena, establezimenduen irekiera-egunak eta -ordutegiak zehazteari dagokionez.

- EAEn indarrean den araudia egokitzea, merkataritza txikiaren babesa handitzeko.

Bilbon, 2020ko urtarrilaren 10ean.